

2017. URTERAKO ORDENANTZA FISKALAK

UDALERRIKO EKONOMI JARDUEREN GAINEKO ZERGAREN ORDAINARAZTEKO ZENBAIT AHALMEN ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua

Udal honek Ordenantza Fiskal honetako koefizienteak eta indizeak finkatu ditu; horretarako, Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren Testu Bateratzailea onartzen duen apirilaren 20ko 1/1993 Foru Dekretu Arauemailearen 11. artikuluan aurreikusitako ahalmenak erabiliz.

II. GUTXIENEKO KUOTEN PONDERAZIOA

2. Artikulua

Udalerrri honetan zergapetutako jardueretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiak zerga honen tarifetan ezarritako gutxieneko kuotak hartu eta 1.ERANSKINean azaltzen diren koefizienteen arabera gehituko dira, hau da, gehikuntza eta ponderazio koefizienteetan.

3. Artikulua

Udalerrrian Zerga honek zergapetutako jarduerak gauzatzen diren lokalean kokapena ponderatzeko, aurreko 2.artikuluaren arabera gehitutako kuotei 2. ERANSKINean adierazitako indizeak aplikatuko zaizkie, bide publikoak duen kategoria kontutan hartuz.

4. Artikulua

Gehikuntza-koefizientea eta kokapen-indizea, ordenantza honetako 2. eta 3. artikuluetan finkatu direnak hurrenez hurren, ez zaizkie aplikatuko ez kuota probintzialei, ez kuota bereziei, ezta Foru Errekarguari ere.

5. Artikulua

Aurreko 3.artikuluaren aipatutako indizeak aplikatzeko, udalerriko kale, plaza edo auzoak sailkatu egiten dira 2. ERANSKINean zerrendatutako kategorien arabera.

III. ZERGAREN KUOTA

6. Artikulua

Zerga honen tributu-kuota zehazteko, tarifek finkatutako gutxieneko kuotak hartu eta gehitu egin beharko zaizkie Ordenantza honetako 2. eta 3. artikuluen arabera dagozkien indize eta koefizienteak eta, kasua balitz, Foru Errekargua.

IV. KUDEAKETA ARAUAK

7. Artikulua

1.- Zerga hau kudeatu, kitatu, bildu eta ikuskatzeko gaitasunak Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku utzi ahal izango dira, betiere Udalbatza Osoak erabakitako baldintzetan, edukian eta eremuan, eta horretarako dagokion hitzarmena izenpetu beharko da, hitzarmena ondorioak izan behar dituen urtearen hasiera baino lehen sinatuz.

2.- Erabaki eta hitzarmen horiek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira sinatu ondorengo lehen seihilekoaren barruan. Era Berean Aldizkari ofizial horren bidez ere argitaratuko da hitzarmen horien salaketa.

3.- Artikulu honetako 1. zenbakian xedatutakoa horrela bada ere, kuota probintzialei eta bereziei dagokionean Foru Aldundiak izango ditu han adierazitako ahalmenak.

V. AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau eta bere eranskinak 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera sartuko dira indarrean, eta hala jarraituko du indargabetzea edo aldaketa erabaki bitartean.

ERANSKINAK

Bilkuraren data: 2016ko urriaren 27a

1. ERANSKINA

Foru Dekretuan finkatutako kuoten gutxieneko kuoten gehikuntza koefiziente bakarra:

- Udal koefizientea: 1,85

Halaber, zerga hau onartzen duen 1993ko apirilaren 20ko 1/1993 Foru Dekretu Arauemailearen 11. artikuluan xedatutakoari jarraituz, negozio-zifraren zenbateko garbiaren arabera ponderazio koefizientea ezarriko da.

2. ERANSKINA

Udalerriko bide publikoen sailkapena eta kokapen indizea:

- Kategoria: Bakarra
- Kokapen Indizea: 1

3. ERANSKINA

HOBARIAK

- Dagokion kuotaren % 25eko hobaria babestutako kooperatibei, bai eta kooperatiben batasunei, federazioei eta konfederazioei nahiz eraldaketarako nekazaritza-sozietateei ere, maiatzaren 22ko 2/1997 Foru Arauan, Kooperatiben Zerga Erregimenari buruzkoan, aurreikusitakoaren arabera, 50 langile baino gehiago ez duten kooperatibak direnean.

- Dagokion kuotaren % 25eko hobaria udal-kuota ordaintzen duten subjektu pasiboiei, baldin eta hobaria aplikatu aurreko zergaldian kontratu mugagabedun langileen batz bestekoa %10ean handitu badute, aurreko zergaldiarekin alderatuta.



Zirkunstantzia hori egiaztatzeko, hobariaren eskaerarekin batera likidatutako azken bi ekitaldietako Sozietate Zergaren egiaztageria, Ogasunak emana, aurkeztu beharko da, baita ere Gizarte Segurantzako langileen azken bi zerrenda nominalak.

- Dagokion kuotaren % 25eko hobaria udal-kuota ordaintzen duten subjektu pasiboari, baldin eta hobaria aplikatu aurreko zergaldian jardueraren errenta edo errendimendu garbi negatiboa badute.

Zirkunstantzia hori egiaztatzeko, hobariaren eskaerarekin batera likidatutako azken Sozietate Zergari buruzko egiaztageria aurkeztu beharko da, Ogasunak emana.

Hobariak bateraezinak dira. Subjektu pasibo berberak hobari bat baino gehiago jasotzeko eskubidea badu, horietako bat aukeratu beharko du. Bestela, udal-administrazioak bere ustez subjektu pasiboarentzat onuragarriena den hobaria aplikatuko du.

Aipatutako hobariak urtero eskatu beharrekoak dira.

Hobarien aitortzea eta aplikazioa ordaintzera behartuta dauden eta udal zergei dagozkien betebeharretan egunean dauden pertsona zergadunen alde egingo da.